

## Agur!

Txillardegi

*Gara*, 2004-10-05: 53.

Aspaldisko honetan Martin larriki gaixoturik zegoela denok jakin arren , kolpe latza izan zaigu gaur goizekoa.

Hitz batzuk bederen idazteko eskatu didazue.

Nola ukatuko?

Baina labur jokatu beharrak areago zailtzen dit egitekoa.

Martinek eta biok izkribuz lehenagotik elkar ezagutzen bagenuen ere, Tarnosko gure etxean (Baiona ondo-ondoan, beraz) mintzatu ginen buruz buru lehenengo aldiz 1970. urtean. Burgosko Epaiketa ari zen mamitzen, eta nik ez neukan Ipar Euskal Herrian finkatzeko eskubiderik.

Caracasetik etorri berria zen bera, eta Bruselatik etorri berria ni. Eta beti bide desberdinetatik ibilirik ere, adiskide on ginen orduan , eta adiskide on egon gara gaur arte.

Ororen gaintik, Martin euskaltzalea zen. Eta abertzale sutsua, hortaz. Bihoa hau aurretik.

1961ean bere "Iltzalleak" argitaratu zuenez geroztik, gero eta garbikiago agertu da Martinen atxikimendu iraunkorra euskararekiko. "Euskaldunon Egunkaria" proiektuan buru-belarri sartuz garbi agertu denez.

Martinek erdaraz hasi zuen bere idazle lana: bai Literaturaren alorrean, bai Kazetaritzarenean. Eta biotan zeukan etorkizun dirdaitsua Venezuelan.

Baina Martinek Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen.

Bai abertzaletasunaren alde borroka egiteko (PNV-ren "Alderdi" hilabetekarian ari izan zen luzaz); eta baita, esana dagoenez, hizkuntzarenean ere .

Sorreraz –edo jaiduraz nahiago bada – gizon moderatua zen Martin. Ez zituen jarrera "erradikal" delakoak maite.

Baina jokabide "erradikal" delakoak hartzen zituztenak ulertzen (are maitatzen ere) saiatzen zen. Joera honen lekuko dugu, adibidez, Lezo Urreztia "guerrillari" iraunkorrari eskainitako lana. Baina besterik ere aipa litezke.

Arzalluz-Garaikoetxea erdibiketaren garaian, EAren hautua egin zuen Martinek. Eta hau ere adierazgarria da.

Lerro hauek idatzita, joan zaigun Martin Ugalde nolakoa zen hobeki uler dezakete bera zuzenean ezagutzeko aukera izan ez dutenek. Agian bai!